

2014-09-09

Etorkizuna iragarri nahi duenak huts egiteko arriskua du, edo, behintzat, ziurgabetasun handi samarrean erortzekoa, are gehiago, gizarte gipuzkoarra 20 urte barru nolako izango den iragartzea bada helburua. Gaurkoa bezalako mundu konplexu batean, maila guztietan elkarlotuta dagoen mundu batean, gauzen segida linealaren logika desagertu egiten da aurre egiten diegun eta gaur aurreikusi ezin ditugun gertakari, jazoera eta ustekabeak ekarriko dizkiguten erronken aurrean. Baina errealitate horrek ez gaitu eraman behar gaur etorkizuna aztertzeari uko egitera. Ezin dugu etorkizunerako prest ez egoteko arriskua hartu, nolakoak izango garen edo gaur irudikatzen zailak diren jazoerak zer gertakarik eragingo dituzten ziurtasun osoz jakiterik ez badago ere.

2009. urtean, Gipuzkoako Aldundiko Bulego Estrategikoak Gipuzkoaren diagnostikoa egin zuen, jokoan zegoenari eragiten zioten elementuak zehaztu zituen eta etorriko zena, ordurako iragartzen ari ziren mundu mailako joerak zein ziren ikusi zuen. 2010-eko urtarrilean, G+20 prozesu estrategikoaren esparruan, gure erronka nagusiak zein ziren, eta gauzak ongi egitea lortuz gero, 20 urte barru nola egon gaitezken iragartzen ziguten "Gipuzkoa 2030 erronka-eszenatokiaren oinarriak" aurkeztu ziren. Etorkizuneko Gipuzkoa marrazteko ariketa bat zen, lan zaila, gero eta zailagoa, baina izugarri garrantzitsua. Era berean, nazioarte mailan berritzailea zen modu batean, Gipuzkoako Parlamentuak, Batzar Nagusiek, Etorkizuneko Batzorde bat sortzeko erabaki adostua hartu zuen, munduan existitzen diren adibide urriekin alderatuz (Finlandia, Eskozia, Txile, Frantzia, etab).

Baina etorkizuna irudikatzea da etorkizun hori lortzeko lehenengo urratsa. Nahi genukeen Gipuzkoaren irudia zen, eta horren aldeko apustua egin zen. Gizarte gisara itxaropena ematen ziguten proiektu partekatuekin eta etorkizunerako jomugekin osatzen joango ginen markoa zen.

Gipuzkoak, etorkizunari ongi jabetuta begiraturaz, proiektu bat desberdintasunetatik partekatzeko gaitasuna gehituz, ahalmen handiagoa izango zuen etorkizuneko errealitate berri horiei alde aurretik aurre egiteko, kudeaketa politikoaren epe laburreko ikuspegia gaitutuko zuten eta pentsamolde estrategikoagoa iradokiko zuten bitarteko edo baliabideei esker.

Zoritxarrez, 2011 urtetik aurrera Gipuzkoako Aldundiko Gobernu berriak prospektiba eta aurreratze edo antiziparioaren aldeko apostua alde batera utzi du epe motzeko ikuspegira bueltatzeko. 90. Hamarkadatik nazioarteko erreferentzia bat izan den lurralde prospektiba ariketa (PREG2020, G2020 eta G+20 izenpean), 2014 urtean erabat baztertuta izan da Gipuzkoako lurraldeko lidergo politiko eta estrategikoa eraman behar duten arduradunengatik, bai Gipuzkoako Aldundian, baita Batzar Nagusietan. Guzti honek, etorkizuneko erronkei aurre egiteko gaitasunik gabe uzten du Gipuzkoako Lurraldea eta beraz, aurrera ezin egiteko bidegurutze batean... Espero dugu arduradun politikoak hontaz lehenbaitlehen konturatzea, beranduegi izan baino lehen...

Irudia: [GureGipuzkoa.net](#) | [Elosegi txapel fabrika](#) © CC BY-SA: Elosegi Ansola, Polikarpo

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on WhatsApp \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)
- [Click to email this to a friend \(Opens in new window\)](#)